

## Informazio ereduak

Informazio ereduak osatzen dituzte batik bat errenta eta errendimendu moten gainean eginiko atxikipenen urteko aitopenen. Badira ere beste eredu batzuk, atxikipenekin zerikusirik izan gabe tributuen kudeaketan informazio garrantzitsua ematen dutenak.

Besteak beste, informazio ereduak bereziki garrantzitsuak dira Errentaren gaineko Zergaren kanpaina prestatzeko orduan. Jasotako informazioaren bidez, eredu hauetan gai gara zergadunei bidaliko zaizkien autolikidazio proposamenak prestatzeko. Gainera, herritarrei ematen zaien informazio fiskala ere lantzen da, errenta aitopena internet bidez aurkezteko erabil daitekeena. Azkenik, lortutako datuak erabiltzen dira errenta mekanizatuko bulegoetan errenta aitopena egiteko. Horrela, lan hori azkartzen da, eta zergadunek ez dute beharrezko dokumentazioaren zatirik handiena aurkeztu behar.

## Aurkezpen epeak

Urte hasieran, ixten den ekitaldi fiskalari dagozkion Zuzeneko Zergen informazio ereduak aurkeztu behar dira. Eredu horien artean, honako hauek ditugu, aurkezpen epearen arabera ordenatuak, Errenta eta Ondarea atalak kudeatuak:

Aurkezpen epea **urtarrilaren 1etik 31ra**:

- **190**: Lan etekinen, jarduera ekonomikoen eta sarien atxikipenak.
  - **345**: Gizarte aurreikuspen sistemak (BGAE, Pentsio Planak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak eta beste batzuk).
  - **180**: Hiri higiezin errentamenduen eta azpierrementamenduen gaineko atxikipenak.
  - **193** eta **194**: Kapital higikorren etekinen eta errenten gaineko atxikipenak (dibidenduak, obligazioen interesak, finantza aktiboen transmisioagatik, etab.).
  - **182**: Dohaintzen, ekarpenen eta erabilerei buruzko informazio aitopena.
  - **296**: Egoitza iraunkorrik gabeko ez egoiliarrek lortutako errenten atxikipenak.
  - **781**: Urteko informazioa etxebizitza kontuei, higiezin birgaikuntzari eta higiezin errentamenduari buruz.
- Aurkezpen epea: **otsailaren 1etik 28era**:
- **184**: Errenten esleipen araubidean dauden erakundeen informazio aitopena (Ondasun Erkidegoa, Sozietate Zibila, Jabe Erkidegoa, Jaraunspen Jasogabea, etab.).
- Aurkezpen epea **apirilaren 1etik ekainaren 30era**:
- **720**: Atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko informazio aitopena.
  - **721**: Atzerrian kokatuta dagoen diru birtualari buruzko aitopena informatiboa.

## Internet bidez aurkeztea

Kontuan izan behar da zergadun batzuek behartuta daudela baliabide elektronikoak erabiltzera Foru Ogasunarekin dituzten hartu-emanetan, eta eredu hauek Internet bidez aurkeztu behar dituztela nahitaez.



## Laguntza programa

Eredu hauek eta beste batzuk aurkezten laguntzeko, **ZergaBidea** (<https://zergabidea.gipuzkoa.eus>) plataforma sortu du Foru Ogasunak bere webgunean. Informazio eredu hauen programak eskuragarri egongo dira astebete lehenago gutxi gorabehera, aurkezpen epea hasi aurretik.

Eredu hauek Internet bidez transmititzeko, gako operatibo bat (B@kQ) edo ziurtagiri elektronikoa bat behar da. Gainera, 190, 180 eta 345 ereduak kontraste datu bidez ere transmititu daitezke, ekitaldiaren 110, 111 edo 115 lehen ereduko –kasuen arabera– sartu beharreko zenbatekoa izango dena.

## Gakoak

Informazio ereduetan, gako bidez eman beharreko informazioa identifikatu eta sailkatzen da. Funtsezkoa da gako egokia ematea ordainketa, errendimendu edo datu bakoitzari. Erabili beharreko gako bidezko informazio zehatza lor daiteke [www.gipuzkoa.eus/ogasuna](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna) webean, Zergak erlaitzetik, betetzen ari den eredu zehatzean sartuz, edo gure telefonora deituz (943 11 30 00).

## Bigarren aurkezpenak (ordezkoak edo osagarriak)

Ohikoa da zergapekoak bere informazio ereduak aurkeztea bere datu guztiekin, **jatorriko** aitorten batean, eta horrela bere betebeharra betetzea. Dena dela, gerta daiteke gero konturatzea jatorriko aitorten horrek akats bat duela edo osagabe dagoela. Zuzentzeko, bigarren aitorten bat aurkeztu behar da, ordezkoa edo osagarria izango dena, kasuen arabera.

Oso garrantzitsua da jakitea zer desberdintasun dauden bigarren aurkezpenen bi moten artean:

**Ordezkoa:** jatorrizkoa ordezkatzeko du, eta Ogasuneko datu baseetan bigarren aitorteneko datuak bakarrik geldituko dira (ordezko aitortpena).

**Osagarria:** jatorrizkoa osatu egingo du, eta Ogasuneko datu baseetan bi aitorteneko datuak geldituko dira.

## Osagarrien eta ordezkoen adibideak

Hamar langileen datuak biltzen dituen 190 eredu bat aurkeztu ostean, zergapekoa konturatu da modelo horretan:

- a) Beste bi langileen informazioa falta dela. Osagarri bat aurkez liteke beste bi langile horien datuekin, edo ordezko bat, 12 langileen datuekin.
- b) Guztietako datu bat, Gizarte Segurantzarena, oker dagoela. 10 langileen datu guztiak biltzen dituen ordezko bat aurkeztu beharko litzateke.
- c) Datuetako bat falta zaiela guztiei: Gizarte Segurantzari buruzkoa. 10 langileen datu guztiak biltzen dituen ordezko bat aurkeztu beharko litzateke.

## Informazio gehiago

Gure webgunean, [www.gipuzkoa.eus/ogasuna](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna), edo gure telefono zenbakira deituta: 943 11 30 00.



## Ohiko galderak

### 190 EREDUA

#### **1. 190 ereduan non islatzen dira lanerako ezintasun iragankorragatiko prestazioak?**

Prestazio horiek zuzenean enplegatzaileak ordaintzen baditu (dagokion Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenari jarraikiz), A gakoan islatuko dira.

Gizarte Segurantzaren edo Klase Pasiboen, edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren mutua kolaboratzailearen erregimen publikoetakoren batek lanerako ezintasun iragankorragatik zuzenean langileari ordaindurikoak B gakoan 01 azpigakoan kontsignatuko dira.

Hortaz, lanerako ezintasun iragankorragatiko prestazioak "LANERAKO EZINTASUNETIK ERATORRITAKO ORDAINKETAK" atalean islatuko dira (eta diruzkoak edo gauzazkok bereiziko dira):

Zuzenean enplegatzaileak ordaindurikoak, A gakoan.

Gizarte Segurantzak, Klase Pasiboek eta mutua laguntzaileek, B gakoan 01 azpigakoan.

#### **2. Gaixotasun arruntaren zein laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren kasuan, enpresak legearen arabera nahitaezkoak diren ordainketak osatzeko aukera du. Nola sartu behar dira osagarri horiek 190. ereduko A gakoan?**

Borondatezko ordainketa osagarri horiek, enplegatzaileak langileei eman diezazkiekeen soldatarekiko bestelako osagarriak bezala, lanerako ezintasunagatiko prestazioaz bestelako ordainketa kontzeptuak dira, eta A gakoan islatu beharko dira, "LANERAKO EZINTASUNETIK ERATORRI GABEKO DIRUZKO ORDAINKETAK (edo, hala badagokio, GAUZAZKOAK)" atalean.

#### **3. Enpresak langileak eginiko ekarpena ere aitortu behar al du 345ean?**

Enpresak, bere 345ean, berak eginiko ekarpena bakarrik sartu behar du, baina ez langile bakoitzak eginikoa. BGAEak aitortu beharko du bere 345ean enpresak zein langileek eginiko ekarpena.

#### **4. Enpresak BGAEari edo pentsio planei eginiko ekarpenak 190. ereduan islatu behar dira? Eta 10 T-an? Zer gertatzen da langileak eginiko ekarpenarekin?**

Enpresak BGAEari edo pentsio planei eginiko ekarpenak ez dira 190. ereduan biltzen; enpresak aurkezturiko 345ean bakarrik aitortu behar dira. Gauza bera gertatzen da langileak eginiko ekarpenarekin, zeina aurreikuspen erakundeak aitortuko duen bere 345ean.

10T-ari dagokionez, eta langileari informazio guztia emateko helburuz, enpresak kontribuzioaren zein BGAEari edo pentsio planei eginiko ekarpenaren datua "10T-aren datu osagarri" gisa sartuko du.

Gauzak argitze aldera, esan dezagun enpresak bi ereduren bidez (190 eta 345) aitortzen dituen datuak biltzen dituela 10T-ak.



## 5. Nola aitortzen dira lan etekin irregularrak?

Etekin irregularrak “lan etekin”ei dagokien A gakoarekin aitortzen dira, baina bi laukitxo aktibatuta:

1. Integrazio %-a.
2. Integratzen ez den kopurua.

Integratzen ez den zenbatekoa zehazteko ez da “Errenta salbuetsiak” L gakorik erabiltzen. Etekin irregularrak ez dira Errenta Salbuetsiak, baizik eta % 100ean integratzen ez diren etekinak, 2 urtean baino gehiagoan sortu baitira.

## 6. Enpresak etekinak gauzetan ordainduz gero, nola kontsignatu behar dira kontura egindako sarrerak, eta, hala badagokio, kontura jasanarazitako sarrerak?

Konturako sarrera aitortzeko bi laukitxo ditugu:

1. Egindako konturako sarrera.
2. Jasanarazitako konturako sarrera.

Egindako dioen laukitxoa beti beteko da, ordaindu duena edozein dela ere.

Jasanarazitakoaren laukitxoa beteko da konturako sarrera langileari deskontatu zaionean, langileak berak ordaindu baitu, eta horregatik ez da diru sarrera izango.

Jasanarazitako GABEKO konturako sarrera: esan nahi du ez zaiola langileari deskontatu, langileak ez duela ordaindu, eta ondorioz, diru sarrera handiagoa da harentzat.

## 7. Nola aitortzen dira 190 ereduan enpresa batek ordaindutako atzerapenak?

A gakoaz “Lan etekinak” aitortzen dira, eta “Sortzapen ekitaldi” laukitxoan atzerapen horiei dagokien urtea jartzen da.

Adibidez. Enpresak 2021. urtean 3.000 € ordaindu dizkit, 2020ko atzerapenen kontzeptuan.

2021eko 190ko ereduan beteko dugu: **A** ordainketa gakoa    Ordaindutako    zenbatekoa    3000...  
**Sortzapen ekitaldia 2020**



## 8. 190 ereduaren gako eta azpigako ohikoenak?

Gakoa	Deskribapena
A	Lan etekinak
F02	Hitzaldiak, ikastaroak, txostenak mintegi eta antzekoetan
G01	Tasa orokorrari atxikitako jarduera profesionalen etekinak
G02	Atxikipen tasa murriztua duten jardueren etekinak
G03	Jardueraren hasierako urtea eta hurrengo biak izateagatik tasa murriztua duten jardueren etekinak
H01	Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekinak, H02 azpigakoa izan ezik
H02	Txerri gizentzeko eta hegazti hazkuntzako abeltzaintza jardueren etekinak
H03	Baso jardueren etekinak
H04	Jardueren etekinak, estimazio objektiboan (Moduluak – PFEZ Araudia, 10. XI)
K01	Loteria eta apustuen zerga berezien menpean ez dauden jolas, zozketetan edo ausazko konbinazioetan parte hartzean lortutako sariak.
L01	Errenta salbuetsiak. Lokomozio eta egonaldi dietak eta gastuak
L05	Errenta salbuetsiak. Langilea kaleratzeagatiko edo kargu uzteagatiko kalte-ordainak.
L10	Errenta salbuetsiak. Beka publikoak edo irabazi asmorik gabeko erakundeek emandakoak.
L15	Errenta salbuetsiak. Atzerrian egindako lanengatiko salbuespena.
L24	Errenta salbuetsiak. Laneko errentak, gauzako ordainketatzat hartzen ez direnak (jantoki tiketak, haurtzaindegia, prestakuntza, laneko istripu aseguru...) Enpresak ordaindutako aseguru medikoa EZ da erreta salbuetsi bat; aitortzen den gauzako lan etekin bat da, ez A gakoa.
L99	Beste errenta salbuetsi batzuk (monitoreak, eskola kiroleko arbitroak... Lanbide arteko gutxieneko soldatarekin, LGS)

## 180 EREDUA

### 1. Baldin eta, atxikipenak jasateko salbuetsita dagoelako errentatzaileak urtean zehar atxikipenik jasan ez badu, 180 eredia aurkeztu behar da?

Errentaria alokairuagatik ordaindutako errentetan ez dago atxikipena egitera derrigortuta suposamendu hauetan:

- Enpresek beren langileei alokatutako etxebizitza denean.
- Errentariak errentatzaile berari ordaindutako errenten kopurua urtean 900 eurotik gorakoa ez denean.
- Errentatzailearen jarduera ekonomikoaren gaineko Zergaren Tarifen Lehen Atalaren 831 taldearen epigraferen batean sailkatuta dagoenean –apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak onartutako tarifak–, edo, hiri ondasun higiezinak alokatzeko edo azpialokatzeko ahalmena ematen duen beste epigraferen batean, eta alokatu edo azpialokatu beharreko higiezinaren katastro balioari



aipatutako 861 taldearen epigrafeetan ezarritako kuota finkatzeko arauak aplikatuta, kuotaren emaitza zero ez bada.

Kasu horretan, errentariak ez du zertan aurkeztu 115 eredia, baina 180 eredia aurkeztu beharko du, errentaren zenbatekoa "Ordaindutako kopurua" laukitxoan sartuta eta "Atxikipena eta sarrera kontura" laukitxoan zuriz utzita.

## **2. Zer egin kontsignatu behar dut 180 eredian, baldin eta errentatzaile berarenak diren hainbat higiezin errentaria banaiz alokairu kontratu bakar batean?**

Errentari gisa erabilitako higiezinetan, katastro erreferentzia desberdina duten higiezinak adina erregistro aitortuak sartu beharko dituzu 180 eredian.

Aipatutako suposamenduan, aitortzaileak jasotzaile erregistro bakoitzean errentatzaile bera jarri beharko du; higiezin bakoitzaren katastro erreferentzia kontsignatu beharko du; eta higiezin bakoitzari dagokion atxikipen osoaren oinarriaren zatia adierazi beharko du.

## **3. Zer zenbateko kontsignatu behar dut alokairu kontratu bakar batean beste higiezin batzuekin batera alokatutako higiezin baten atxikipen oinarri gisa, kontratuan higiezin bakoitzari prezio osoaren zer zati dagokion zehazten ez bada?**

Baldin eta, alokairu kontratuan horren barruko higiezin bakoitzari prezio osoaren zer zati dagokion zehazten ez bada, aitortzaileak dena delako kontratuaren atxikipen osoaren oinarriaren zati bat kontsignatu beharko dio higiezin bakoitzari, atxikipen oinarri gisa, eta horretarako alokairu kontratuaren prezio osoan errentariak higiezin bakoitzaren banakako prezioztat hartzen duen zenbatekoaren proportzioa haztatu beharko du.

Zenbateko hori kalkulatzeko, errentariak higiezin bakoitzari dagokion atxikipen oinarriaren zatia estimatu ahal izango du, antzeko ezaugarriak dituen higiezin baten alokairu independente baten merkatu prezioetik abiatuta.

Alokairu kontratu beraren barruan antzeko ezaugarriak dituzten hainbat higiezin baldin badaude, aitortzaileak higiezin bakoitzari dagokion atxikipen oinarria kontsignatu ahal izango du, atxikipen oinarri osoa zati berdinetan banatuta.

## **4. Zer kopuru kontsignatu behar dut "Alokairu zenbateko" gisa 180 eredian hilabeteko alokairuarekin batera hainbat gastu fakturatzen dizkidatenean?**

Alokairuagatik ordaindu den zenbateko osoa sartu behar da; hau da, bai alokairuaren gastua, bai alokairuari lotuta dagoen eta errentariak ordaintzen duen gastua.

Argitu behar da zenbateko oso hori oinarri gisa eratzen dela, dagokion atxikipena egiteari begira.



## 5. Non aurkeztu behar da 180 eredu abian den ekitaldian errentariak zerga helbidea aldatu badu?

180 eredu errentariaren zerga helbideari dagokion administrazioan aurkeztu behar da; hortaz, helbide hori aldatzen bada, 180 eredu bat aurkeztuko da administrazio bakoitzean, bakoitzari dagokion alokairuaren zatia sartuta.

## 6. Higiezinaren egoera gakoak 180 ereduan

Gakoa	Deskribapena
1	Katastroko erreferentzia duen higiezina, Espainiako lurraldearen edozein tokitan kokatua dagoena, Euskadin eta Nafarroan izan ezik.
2	Finka zenbakia duen higiezina, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoena.
3	Katastro-erreferentzia duen higiezina, Nafarroako Foru Erkidegoan dagoena.
4	Aurreko kasuetako batean dagoen higiezina, baina ez daukana finka zenbakirik ez katastro-erreferentziarik.

## 193 EREDUA

### 1. Ondare sozietateek nahitaez aurkeztu behar dute 193 eredu, dibidenduak banatzen badituzte? Nola aitortu behar dituzte?

Bai.

Dibidendu horien hartzailea pertsona fisiko bat bada, PFEZari lotua, **(A-06)** gakoarekin aitortu behar dira. Dibidendu horien hartzailea pertsona juridiko bat bada, sozietateen gaineko zergari lotua, **(A-02)** gakoarekin aitortu behar dira.

### 2. 193 ereduko gako eta azpigako ohikoenak

Gakoa	Deskribapena
A02	Kooperatiba dibidenduak eta itzulkinak
A06	Etekin salbuetsiak. Ondare sozietateetako dibidenduak, hartzailea pertsona fisiko bat bada.
A08	Atxikipenei lotu gabeko dibidenduak (Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 33. artikulua).
A09	Kooperatibetako ekarpenen interesak
B03	Mailegu ez bankarioen interesak
C 04	Ondasun higigarrien, negozioen edo meategien errentamenduaren edo azpierreantamenduaren ondoriozko etekinak
C06	Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzeagatiko etekinak
C07	Hiriko ondasun higiezin azpierreantamendua
C10	Administratzaile edo kontseilari karguak beste sozietate batean, hartzailea pertsona juridiko bat bada.



## 194 EREDUA

### 1. Noiz aitortu behar dute kooperatibek 194 eredua?

Kooperatibistek egindako ekarpenei dagokienez egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

1. Ekarpentak itzultzea (erretiroa, baliaezintasuna...).
2. Ekarpenen inter vivosko transmisioa egitea.
3. Ekarpenen mortis causa transmisioa egitea.
4. Ekarpentak beste kooperatiba batera aldatzea.
5. Ekarpenen gaineko eskubide errealak eratzea edo lagatzea.

### 2. Kooperatibista batek kooperatiban baja ematen badu erretiroa hartu duelako, nola aitortu behar da egoera hori 194 ereduan?

Kooperatibak 194 ereduan aitortuko du, erretiroari dagokion ekitaldian, ( **U** ) gakoarekin (Ekarpenen itzulketa), eta "Zenbatekoa" atalean, itzulketaren zenbateko osoa adieraziko du. Horrek ez du esan nahi ordainketa ezingo denik hainbat epetan egin, baita hainbat urtetan ere, edo erretiroaren ostean.

## 182 EREDUA

### 1. 182 ereduko gako ohikoenak

Aitortzailearen izaera			
<b>1. Dohaintzen onuradun entitatea</b>			
	Gakoa	A	Dohaintzak, lehentasunezko jarduerak edo programak izan ezik (%20eko kenkaria PFEZari)
		R	Lehentasunezko jarduera edo programetako dohaintzak (%30eko kenkaria PFEZari)
<b>3. Ondare babestu baten administratzailea edo titularra</b>			
	Gakoa	C	Ezgaituen ondarean egindako ekarpena
		D	Ezgaituen ondarearen erabilpena
<b>4. Alderdi politikoa</b>			
	Gakoa	T	Kargudun politikoek alderdiari nahitaez egin beharreko ekarpentak
		V	Alderdi politikoetako afiliazio kuotak eta ekarpentak (%20eko kenkaria PFEZari)
<b>8. Kultur mezenasgoaren edo oinarritzko ikerketarako mezenasgoaren hartzaile diren pertsona eta entitate onuradunak</b>			
	Gakoa	K	Dohaintzak, kultur mezenasgoa (%35eko kenkaria PFEZari)
		I	Dohaintzak, oinarritzko ikerketarako mezenasgoa (%35eko kenkaria PFEZari)
<b>9. Langileen sindikatua</b>			





<b>Gakoa</b>	<b>S</b>	Sindikatu kuota (%20eko kenkaria PFEZari)
--------------	----------	---

## **184 EREDUA**

### **1. Nork aurkeztu behar du 184 eredia?**

Zerga egoitza Gipuzkoan duten errenta esleipenaren araubideko erakundeek, **jarduera ekonomikoren bat egiten badute** edo **urtean 3.000 eurotik gorako errentak** badituzte.

Atzerrian eratu diren errenta esleipenaren araubideko erakundeek, Gipuzkoan jarduera ekonomikoren bat gauzatzen badute.

Entitate obligaziodunak: Ondasun erkidegoak      Jabekideen erkidegoak  
Sozietate zibilak      Jaso gabeko jaraunspenak      Beste batzuk

Erakunde horiek jarduera ekonomikoren bat gauzatzen badute, beti aurkeztu beharko dute 184 eredia, baita jardueraren etekina negatiboa bada ere.

### **2. Nola aitortu behar dira erkideen altak eta bajak ekitaldian zehar?**

Dagokion zentsu aitortpena (036 eredia) aurkezteaz gain, ekitaldian izan diren egoera desberdin adina 184 eredu aurkeztu beharko dira. 184 ereduaren bigarren alea eta hurrengoak osagarri gisa aurkeztuko dira.

Adibidez: Ondare Erkidego batek bi erkide ditu ekitaldiaren hasieran, eta maiatzean, berriz, hiru.

184 ereduaren ale bat aurkeztuko dugu, non jasota dagoen OEk urtarriletik maiatzera bitarte izandako etekin garbia, eta etekin hori hasieran ziren bi erkideei esleituko diegu. Ondoren, 184 ereduaren beste ale bat aurkeztuko dugu, OEk ekainetik abendura bitarte sortutako etekin garbiarekin, eta amaieran OE osatzen duten hiru erkideei esleituko diegu.

### **3. Ekitaldian zehar erkide bat erkide langile izatetik erkide kapitalista izatera pasatzen bada, nola adierazi behar da egoera hori 184 ereduan?**

184 ereduaren bi ale aurkeztuko dira, eta horietan adieraziko da aldi bakoitzari dagokion egoera, aldi bakoitzeko etekin garbia egokituz, aldi bakoitzeko egun kopuruaren eta irabazi zein gastuen arabera. 184 ereduetako batean, erkide guztiak langileak izango dira, eta bestean, berriz, haietako bat bazkide kapitalista izango da, eta aldi horretako etekin garbitik jarritako kapitalaren %15 esleituko zaio, gehienez ere. 184 ereduaren lehen alea hasierako aitortpen gisa aurkeztuko da, eta bigarrena, berriz, osagarri gisa.

### **4. Ondasun erkidego batek 5.000 euroko etekinak sortu baditu higiezinak alokatzeagatik baina 2.000 euro bakarrik kobratu baditu, nahitaez aurkeztu behar du 184 eredia? Zer zenbatakorekin?**



Errenta esleipenaren araubideko erakundeek nahitaez aurkeztu beharko dute 184 eredia, baldin eta errentak urtean 3.000 eurotik gorakoak badira. Hortaz, eredia aurkeztu behar du, baina 2.000 euroko zenbatekoa adierazi behar du, hori baita jaso duena. Gastuek jasotako sarrerekiko proportzionalak izan behar dute.

### 5. Ondasun erkidego batek nahitaez aurkeztu behar du 184 eredia, ekitaldian zehar jarduera ekonomikorik izan ez badu?

Ez bada izan ez sarrerarik ez gasturik, ez du 184 eredia aurkeztu behar (ez dago erkideei esleitzeko etekin garbirik).

### 6. Ondasun erkidego bateko erkide batek lanerako ezintasun iragankorragatiko sarrerak jaso ditu ekitaldian zehar. Nola aitortu behar dira sarrera horiek 184 eredian?

LEIren zenbatekoa jarduera ekonomikotik sortutako gainerako sarrerei gehituko zaio, ondasun erkidegoaren etekin garbia kalkulatzeko.

### 7. Errenta moten gako ohikoenak 184 eredian

Gakoa	Deskribapena
C	Higiezinen kapitalaren etekinak
D	Jarduerak ekonomikoen etekinak
K03	Jarduera ekonomikoengatiko atxikipeak (ez dira sartu behar ordainketa zatikatuak)

## 296 EREDUA

### 1. Noiz aurkeztu behar du enpresa batek 296 eredia, 190 ereduaren ordeztu?

Errenten hartzailea zergadun EZ-egoiliar bat denean.

### 2. Zer eredutan aitortu behar da lokal baten errentamendua, errentatzailea zergadun ez-egoiliar bat baldin bada?

Errentariak 296 eredia aurkeztu behar du, eta **(14)** "Ondasun Higiezinen Etekinak" gakoarekin aitortuko da.

### 3. Zer eredutan eta zer gakoekin aitortu behar dira mugaz gairik langile bati ordaindu beharreko lan etekinak?

296 eredian aitortzen dira, honako gako hauekin:

**( 20 )** "Lan etekinak"      **( 4 )** azpigakoa: Hitzarmen baten ondorioz aplikatutako salbuespena



#### 4. Dibidenduen edo interesen ordainketa aitortu dugu 296 ereduan, eta “ORDAINKETA” laukian bi aukera daude: 1. Jaulkitzailea eta 2. Bitartekaria. Zein aukeratu behar dut?

Oro har, 1. aukera hautatuko dugu, jaulkitzailearena.

Bitartekari gisa bete behar da, baldin eta 296 eredua aurkezten duena ordainketan soilik bitartekotza egiten duen artekari bat bada. (Adibidez: B erakundeak bitartekotza egin du ordainketan, hau da, A erakundeak banatuko dituen dibidenduak ordaindu ditu).

#### 5. 296 ereduko gako eta azpigako ohikoenak

Gakoa	Deskribapena
1	Dibidenduak eta antzekoak
14	Ondasun higiezinaren etekinak (errentamenduak)
20	Lanaren errentak
<b>Azpigakoa</b>	
1	Tasa orokorreari aplikatutako atxikipena (Ez-egoiliarren Errenta gaineko Zergaren Foru Arauaren 25. art.)
2	Zergapetze bikoitzeko hitzarmenaren mugak aplikatuta egindako atxikipena
4	Zergapetze bikoitzeko hitzarmen baten ondorioz aplikatutako salbuespena
12	Salbuetsita dauden dietak eta bidaia gastuetarako diru-esleipenak

#### 720 EREDUA

2021 urtetik aurrera, ondasun higiezinaren kasuan izan ezik, urtero atzerriko ondasun eta eskubide guztien berri eman behar da, kategoriaren arabera taldekatuta, betiere kategoria bakoitzeko 50.000 euroko atalasea gainditzen bada. Beraz, aurreko erregulazioak ezartzen zuen ez bezala, 20.000 euro baino gutxiagoko igoera egon arren, zergadunak urtero eman beharko du haiei guztiei buruzko informazioa.

Informazio aitortpena bakarrik ondasun higieziari eta haien gaineko eskubideei buruzkoa denean, aurreko arauari eutsiko zaio, eta hurrengo urteetan aitortpena egiteko betebeharra egongo da azken deklarazioa aurkeztea eragin zuen urtearekiko 20.000 eurotik gorako igoera dagoenean bakarrik, salbu eta urte horretan zergadunak beste edozein ondasun kategoriari buruzko informazioa emateko betebeharra badu; kasu horretan, ondasun higieziari buruzko informazioa ere eman beharko du, edo, bestela, haien gaineko eskubideei buruzkoa, nahiz eta 20.000 euro baino gehiagoko igoerarik ez egon.

Kasu horretaz gain, lehen bezala, eskualdatutako edo baja emandako ondasunei edo eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharra dago, baldin eta aldezturik atzerriko ondasun eta eskubideei buruzko informazio aitortpen batean sartu badira.



**AURKEZTEKO EPEA: apirilaren 1etik ekainaren 30era** (Errenta kanpainarekin eta ondarearekin bat).

## 1. Bi lauki HERRIALDEA datuarekin.

Lehenengoa: ondasunak edo eskubideak gordailututa dauden herrialdea.

Bigarrena: ondasun edo eskubideen jatorrizko herrialdea.

Adibidea: Alemaniako enpresa baten akzioak Suitzako banketxe batean gordailututa daude.

Herrialdeari buruzko lehen laukian Suitza jarri beharko da, bertan gordailututa baitaude ondasunak.

Herrialdeari buruzko bigarren laukian, berriz, Alemania jarri beharko da, akzioak Alemaniako enpresa batenak baitira.

## 2. Zer aitortu behar da?

Atzerrian dauden ondasun eta eskubideei dagokienez, lau bloke hauei buruzko informazioa eman beharko da:

- a) Finantza erakundeetako kontuak, baldin eta aitorlea horien titular juridikoa, titular erreal, baimendua, ordezkaria edo onuraduna bada edo horiek erabiltzeko ahalmena badu.
- b) Baloreak, eskubideak, aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak, baldin eta aitorlea titular juridiko edo erreal, aseguruaren hartzailea edo errenten onuraduna bada.
- c) Ondasun higiezinak eta horien gaineko eskubide errealak.
- d) Ondasun higigarriak eta horien gaineko eskubideak, baldin eta atzerrian badaude edo atzerriko herrialde batean matrikulatuta edo erregistratuta badaude.

2023ko ekitalditik aurrera, ez da 720 ereduan diru birtualari buruzko informaziorik eman behar. Diru birtualaren berri 721 ereduan "Atzerrian kokatuta dagoen diru birtualari buruzko aitortpen informatiboa" eman beharko da.

Informazio gehiago eta ohiko galderak gure webgunean ([www.gipuzkoa.eus/ogasuna](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna)), ereduen atalean 720 ereduan sartuta.

## **721 EREDUA**

### Berritasuna

2023ko ekitalditik, atzerrian kokatuta dagoen diru birtualari buruzko informazioa emateko betebeharrak berri bat dago.

Informazioa emateko betebeharrak abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren 54 bis artikuluan arautzen da (47/2013 Foru Dekretua, zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duena).

### 1- Nork aurkeztu behar du 721 eredua?

Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisiko eta juridikoek, pertsona edo entitate ez-egoiliarrek lurralde horretan dituzten establezimendu iraunkorrek, eta orobat, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen diren entitateak, baldin eta atzerrian diru birtualaren titularrak badira, edo horren onuradun badira, baimenduta badaude edo beste moduren batean xedatzeko ahalmena badute, edo horien titular errealak badira, eta



hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituzten pertsonak edo entitateek zaintzen badituzte, diru birtuala mantentzeko, biltegitzeko eta transferitzeko, urte bakoitzeko abenduaren 31n.

Betebehar hori izango dute, halaber, diru birtualaren horien titular, baimendu edo onuradun izan direnek, horien gainean xedatzeko ahalmena izan dutenek, edo adierazpenaren urteko edozein unetan titular erreala izan direnek, baldin eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galdu badute.

Zergadunek 721 ereduak aurkeztu beharko dute, baldin eta abenduaren 31n diru birtualaren baterako balioak 50.000 euroko muga gainditzen badu.

## 2. Zer informazio eman behar da 721 ereduan?

Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak honako hauek jasoko ditu:

- a) Gako kriptografiko pribatuak hirugarrenen izenean babesteko edo diru birtuala mantendu, biltegitatu eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo entitatearen izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa edo, hala badagokio, baita haren egoitza fiskala kokaturik dagoen herrialdeko identifikazio fiskaleko zenbakia, bizilekua edo webgunearen helbidea ere.
- b) Diru birtual mota bakoitzaren identifikazio osoa.
- c) Diru birtual mota bakoitzak abenduaren 31n dituen saldoak, moneta birtualeko unitateetan adierazita eta eurotan baloratuta.

Aitortzeko betebeharrak duenaren izaera abenduaren 31 baino lehen irautsi bada, eman beharreko informazioa irautsi hori gertatu zen egunari dagokiona izango da.

## 3. Urtero aitortu behar al da?

Hurrengo urteetan, aitortpena nahitaez aurkeztu beharko da, baldin eta, eurotan balioetsitako atzerriko diru birtualaren abenduaren 31ko baterako saldoa 50.000 eurotik gorakoa bada.

**AURKEZTEKO EPEA: apirilaren 1etik ekainaren 30era** (Errenta kanpainarekin eta ondarearekin bat).